

PRENTSA-OHARRA

2015 / 01 / 26

BAXERA GARBITZEKO E-VO BELAUNALDI BERRIA AURKEZTU DU FAGOR INDUSTRIALEK



- **E-VO belaunaldi berria hiru gamatan, Horeca sektorearen beharrak asetzeko.**
- **Belaunaldi berriko produktuak sendoagoak, eraginkorragoak eta adimendunagoak dira.**

Ostalaritza, talde handientzako sukaldaritza eta garbitegien sektoreetan aitzindaria den **Fagor Industrial**ek baxera-garbitetako E-VO belaunaldi berria aurkeztu du, sukalde profesionaleri ahalik eta etekin gehiena ateratzeko.

Garbiketaren munduan iraultza eragiteko asmoz, E-VO belaunaldi berriak arreta jartzen du produktu adimendunagoak, fidagarriagoak, sendoagoak, eraginkorragoak eta,aldi berean, erabilerrazagoak eskaintzeko. E-VOk merkatuko gamarik altuenen berezko abantaila eta zehaztasun guztiak eskaintzen ditu, baina makina basikoagoekin. Egitura bakar sinplifikatuari esker, gama bakoitzaren teknologiarik zein merkatuko beharrei egokitzen zaie, eta goi-mailako kalitate gorena bermatzen du modelo ekonomikoagoen bidez. Makinerian eta fabrikaziorako erremintetan egindako inbertsio-ahalegin handiaren fruitu, enbutizioen bidez ekipamenduak sinplifikatzeko aukera dago, pieza torlojutu gutxiago behar baitira. Hortaz, fidagarritasuna, sendotasuna, segurtasuna, eta garbiketa eta mantentzerako erraztasuna ezin hobek dira.

Behar oro asetzen dituzten hiru gama

Fagor Industrialek familia bakarrean biltzen ditu edozein establezimenduren behar guztiak. Abantaila eta funtzionalitate horiek denak baxera garbitzeko belaunaldi oso eta zabalean islatu dira, hiru gamaz osatutakoa.

Baxera garbitzeko belaunaldi berriaren izarra **E-VO ADVANCE** gama da, onena gura dutenentzat pentsatua eta erabiltzeko nahiz mantentzeko erraza. Profesionalek amets ditzaketan baldintzak betetzen dituzte **E-VO ADVANCE** makina adimendunek: punta-puntako teknologia, sendotasuna, garbiketa-programak pertsonalizatzeko aukera (denbora eta tenperatura), autogarbiketarako funtzioak, bai eta mantentze-denborak optimizatzeko autodiagnosia ere. Azken finean, makina eskusiboa da, gaurko inbertsioak, bihar, errentagarri bihurtu daitezkeen.

E-VO CONCEPT+, aldiz, ezin hobea da sare-presio baxuko eta urberitze-eskakizun handiko instalazioetan erabiltzeko. Izan ere, gama gorenen onura zein ezaugarri guztiak uztartzen ditu, erraz erabil daitekeen agente-panel elektromekanikoarekin. Berezi eraginkorrak diren garbiketa- eta urberitze-sistemak eskaintzen ditu (EFFI-WASH eta EFFI-RINSE), eta edozein garbiketa-guneraren aliatu bikaina da.



ONNERA GROUP



Together we evolve

www.fagorindustrial.com

Azkenik, **E-VO CONCEPT** da aukerarik egokiena baxera garbitzeko makineria bakun, fidagarri, sendo eta eraginkorraren bila ari direnentzat. E-VO Advance eta E-VO Concept+ gamarik altuenak bezala, E-VO Concept oinarritzko gamak serieko gorputz erabat enbutitua du (garbiketa-upela, saskiak eusteko gida, garbiketa- eta urberitze-besoak, altzairu herdoilgaitzekoak, kontratea, etab.), horma bikoitzekoa (atea eta gorputza), eta kontrol-panel eta osagarri elektromekanikoekin. Era berean, aurretik eta goitik kargatzeko E-VO ontzi-garbigailuek GN 1/1 erretiluak garbi ditzakete, aurretik irekitzen den ahoak 380 mm-ko gutxieneko altuera baitu; alegia, gaur egungo sukaldean ezinbesteko baldintza, etorkizunean ere hala izango dena. Gainera, ezin daiteke ahaztu nola instalazio bakoitzera hala baldintza elektrikoetara egokitzeko duen gaitasuna, potentzia anitz dituelako eta konexio anitzeko kutxaren bidez, irisgarritasun teknikoa errazten duelako.

Baxera garbitzeko belaunaldi berriaren onurak

E-VO belaunaldi berriaren abantailarik nagusienetako bat da eguneko kontsumoa nabarmen aurrezten dela, merkatuan dauden makina estandar eta gama altuko makinekin alderatuta. Horrenbestez, belaunaldi lehiakor eta errentagarri bihurtu da. Baxera garbitzeko belaunaldi berriari esker, ur-kontsumoa murrizten da, bai goitik kargatzeko modeloetan bai aurretik kargatzekoetan, eta eskuragarri dauden gama guztietan gutxitzen du eguneko kontsumoa.

Erraztasunari eta sendotasunari lehentasuna eman zaie. Hori dela-eta, gorputza sinplifikatzeko, pieza enbutitua eta robot automatiko bidezko soldatzea erabili ez ezik, osagaiak ere murriztu dira, makinaren fidagarritasuna areagotzeko. Mantentze eta instalazio denbora zein kostuak minimizatze aldera, osagaietara erazago irits daiteke orain, eta azpimarratzekoa da makinaren tentsioa eta potentzia instalazioaren baldintzetara egokitzeko erabiltzen den konexio anitzeko kutxa, edozein ezusteko edo azken orduko aldaketa *insitu* ebatz daitekeelako.

Belaunaldi horrek ingurumenarekin duen konpromisoa ere aipatu beharra dago. Makinen %50 birzikla daitezke, eta eguneko kontsumoaz bestalde, ingurumenaren gaineko eragina optimizatzen da.

“Baxera garbitzeko E-VO belaunaldi berria merkaturatzearekin batera, bai kalitatea bai prestazioak hobetzen dira, hain garrantzitsuak diren ekonomia eta iraunkortasuna ahaztu gabe”, adierazi du Juan Alosek, Fagor Industrialeko produktu-buruak. “Merkatuko ontzi-garbigailurik aurreratuenak, sendoenak eta egokikorrenak diseinatzeko ahalegina egin dugu enpresan, eta belaunaldi hau horren emaitza da; beharrak behar, sukalde profesionalen egunerokotasuna errazteko pentsatua baitago”, ondorioztatu du Alosek.

Fagor Industriali buruz

Fagor Industrial, Mondragon taldearen barruan dagoen kooperatiba, espezialista da ostalaritza, talde handientzako sukaldaritza eta garbitegien sektorerako soluzio integralen horniduran eta instalazioan. Horretarako, elaborazio propioko produktu gama zabal eta berritzaileaz baliatzen da. ONNERA Group nazioarteko enpresa-taldeko kide da Fagor Industrial. Aipatu taldeak 10 fabrika ditu mundu osoan, eta 1.700 pertsona baino gehiagori ematen die lana. Seriotasuna, kalitatea eta produktuen abangoardia teknologikoa ditu ezaugarri, bai eta salmenta aurretiko nahiz ondoko zerbitzu eraginkorra ere. Horregatik guztiagatik Fagor Industrial bazkide ezin hobea da bezero globalentzako proiektu integralak eskaini nahi duen ororentzat.

Informazio gehiagorako:
LEWIS PR
Nuria Mañá / Beatriz Osés
FagorSpain@lewispr.com
Tel.: 91 770 15 16



ONNERA GROUP



Together we evolve

www.fagorindustrial.com